

## **Bederatzi ipuin kontaketa izango dira abendura arte Azpeitiko liburutegian**

AZPEITIA. Azpeitiko haur eta gaztetxoek udal liburutegiak urtero antolatzen duen Ipuin kontaketak egitasmoaren XXII. edizioarekin disfrutatzeko aukera izango dute urritik abendura bitartean. Aurtengoan, adin tarte desberdinen arabera antolatutako bederatzi saio izango dira liburutegian. Denak 18.00etan hasiko dira, puntualtasunez.

Aurreko urteotan bezala, ipuin kontalari ezagunak izango dira 2011ko saioetan: Maite Franko, Lupe Lekuona, Miriam Mendoza eta Pello Añorga, hain zuzen ere.

Edonola ere, aurtengo ipuin kontaketen egitasmoari hasiera emateko Maite Frankoren emanaldia izango da datorren astelehenean Azpeitiko liburutegian. Lehen saio hori Haur Hezkuntzako 4. mailako haurrei (lau urtekoak) zuzenduta egongo da. Maite Frankoren bigarren emanaldia urriaren 17an izango da, sei eta hamaika urte arteko haur eta gaztetxoentzat.

Azpeitiko liburutegira gerturatuko den hurrengo ipuin kontalaria Lupe Lekuona izango da. Honek bost urteko umeentzako saio bakarra eskainiko du, urriaren 10ean.

Bestalde, Miriam Mendozak hiru emanaldi eskainiko ditu aurten Urola Erdiko herrian irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako programaren baitan. Bere lehen saioa (lau urtekoentzat) azaroaren 7an izango da; bigarrena (6-11 urte artekoentzat), azaroaren 21ean eta hirugarrena (bost urtekoentzat), abenduaren 12an.

Azkenik, Pello Añorga ipuin kontalariaren beste hiru emanaldi izango dira Azpeitiko udal liburutegian: azaroaren 14an (bost urtekoentzat) eta 28an (lau urtekoentzat) eta abenduaren 19an (6-11 urte artekoentzat). Azken saio horrek aurtengo Ipuin kontaketak egitasmoa itxiko du. Antolatzaileek haur eta gaztetxo guztiak gonbidatu dituzte.